Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

AA/ig

**FA-IOH-098/18**
**36-IN**

**FORU AGINDUA - ORDEN FORAL**

Donostia, 2018ko urriaren 18a
San Sebastián, a 18 de octubre de 2018

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua, udalenganako izaera subsidiarioko bere eskumenak erabilita, herri hauetako hondartzak garbitzeaz eta mantentzeaz arduratzen da: Hondarribia, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba eta Mutriku. Orobat, diruz laguntzen du Donostiako hondartzak garbitzea.

El Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el ejercicio de sus competencias de carácter subsidiario hacia los ayuntamientos, se encarga de la limpieza y mantenimiento de las playas de Hondarribia, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba y Mutriku. Asimismo, colabora económicamente en la limpieza de las playas de Donostia-San Sebastián.

Gainera, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoari dagokionez, bere helburuen artean du (50.a) Gipuzkoako hondartzen kudeaketa integrala lortzea.

Además, el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, en relación con el Plan Estratégico de Gestión 2015-2019, cuenta entre sus objetivos (nº 50) con el de lograr la gestión integral de las playas de Gipuzkoa.

Horregatik, kontuan harturik hainbat gabezia antzeman direla Gipuzkoako kostaldeko hondartzen azpiegituretan eta irisgarritasun baldintzetan, azterlan bat egin zen, 2016an, azpiegiturak eta irisgarritasuna hobetzeari buruz, zertarako-eta zerbitzu hobeago batzuez hornitzearren egin litezkeen jarduketak analizatzeko eta irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudia betetzeko, oinarritzat hartuta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

Por todo ello, ante las carencias observadas en las infraestructuras y las condiciones de accesibilidad de las playas del litoral guipuzcoano, se llevó a cabo en 2016 un estudio de las mejoras de infraestructuras y accesibilidad, con el fin de analizar las posibles actuaciones para dotarlas de unos mejores servicios, y de cumplir con la normativa vigente de accesibilidad, en base al Decreto 68/2000 por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

Horiek horrela, erabaki da hondartza hauen azpiegiturak eta irisgarritasuna hobetzeko lanei ekitea: Puerto (Mutriku), Santiago (Deba), Lapari (Deba) Gaztetape (Getaria), Malkorbe (Getaria), Antilla (Orio) eta Hondarribia. Aurreikusitako esku-hartzeak proiektatzerakoan, eraginpeko udalekiko koordinazioan egin da, haiekin adostuz irispideetan egin behar diren jarduketak.

En este sentido, se ha decidido acometer obras de mejora de infraestructura y accesibilidad en las playas de Puerto (Mutriku), Santiago (Deba), Lapari (Deba) Gaztetape (Getaria), Malkorbe (Getaria), Antilla (Orio) y Hondarribia. Las intervenciones previstas se han proyectado en coordinación con los ayuntamientos afectados, consensuando con ellos las actuaciones necesarias en los diferentes accesos.

Horretarako, dagokion lan proiektua idatzi da, barne hartzen duena baldintza teknikoen agiria, eta proposatzen da lanen kontratazioa prozedura ireki erraztuaren bidez egitea, aipatu proiektuan

Con tal motivo, se ha redactado el correspondiente proyecto de obras, que incluye el preceptivo pliego de prescripciones técnicas, y se se propone proceder a la contratación de las

deskribatu diren baldintza teknikoen arabera. Lizitazio aurrekontua 247.644,12 € da, gehi 52.005,27 €, BEZagatik (% 21), guztira 299.649,39 €. Lanak gauzatzeko, hilabete bateko epea beharko dela kalkulatzen da.

obras por procedimiento abierto simplificado, con arreglo a las condiciones técnicas que se han descrito en el citado Proyecto, cuyo presupuesto de licitación asciende al importe de 247.644,12 €, más 52.005,27 € IVA (21%), total 299.649,39 €, siendo el plazo estimado de ejecución de obra de un mes.

Ondorioz, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, xedatutakoari jarraituz, proiektua onartzen da, baita lanak kontratatzeko espedientea ere, Lege horren 159. artikuluak arautukato prozedura irekia erraztuaren bidez. Espedienteak barne hartzen ditu proiektuaren zuinketa, kontratuaren gauzatzea arautuko duen baldintza administratibo berezien agiria eta dagokion gastuaren fiskalizazioa.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se procede a la aprobación del proyecto y del correspondiente expediente de contratación de las obras mediante procedimiento abierto simplificado regulado en el artículo 159 de dicha Ley, que comprende el replanteo del proyecto, el pliego de cláusulas administrativas particulares a las que habrá de ajustarse la ejecución del contrato y la fiscalización del gasto correspondiente.

Beraz, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuak,

En consecuencia, este Diputado Foral de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas,

**EBAZTEN DU**

**Lehenengo.-** Onartzea Portuko, Debako, Gaztetapeko, Malkorbeko, Antillako eta Hondarribiko hondartzen azpiegiturak eta irisgarritasuna hobetzeko lanen proiektua **(2018/97-HH-LS).** Lizitazio aurrekontua berrehun eta berrogeita zazpi mila seirehun eta berrogeita lau euro eta hamabi zentimokoa da (247.644,12 €) eta zenbateko horri gaur egun dagokion BEZa (% 21) gehitu behar zaio, hau da, 52.005,27 €, guztira 299.649,39 €. Lanak gauzatzeko epea hilabete batekoa (1) da.

**Bigarren.-** Onartzea baldintza administratibo berezien agiria eta kontratazio espedientea, eta abian jartzea prozedura ireki erraztuaren bidezko esleipen prozedura.

**Hirugarren.-** Kontratazio honetarako 299.649,39 €-ko gastua baimentzea, aurrekontuko 1.0910.110.662.00.01.2018 kontu sailaren kargura.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete, interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, BI HILABETEKO EPEAN, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

**RESUELVE**

**Primero.-** Aprobar el Proyecto de obras para la mejora de infraestructura y accesibilidad en las playas de Puerto, Deba, Lapari, Gaztetape, Malkorbe, Antilla y Hondarribia, **(2018/97-HH-LS)** cuyo presupuesto de licitación asciende a la cantidad de doscientos cuarenta y siete mil seiscientos cuarenta y cuatro euros con doce céntimos (247.644,12 €), al que debe añadirse el IVA correspondiente por un importe de 52.005,27 € (21%), total 299.649,39 €, IVA incluido, y con un plazo de ejecución de obra de un (1) mes.

**Segundo.-** Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares y el expediente de contratación y disponer la apertura del procedimiento de adjudicación por procedimiento abierto simplificado.

**Tercero.-** Autorizar un gasto de 299.649,39 € con cargo a la partida presupuestaria 1.0910.110.662.00.01.2018.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastian, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

Hala ere partikularrek, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatuari, HILABETEKO EPEAN, jakinarazpenaren biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

No obstante las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante este Diputado Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

**INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA,**
**EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS,**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidraúlicas

**Sin.: / Fdo.: José Ignacio Asensio Bazterra**